

# 20 08


## Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren urteko txostenaren laburpena

Kontratazio Publiko  
Elektronikoko Ereduaren  
Idazkaritza Teknikoa.  
Ondarea eta Kontratazioko  
Zuzendaritza.

Herri Finantzen eta  
Administrazioaren Saila.  
Eusko Jaurlaritza.

(2009ko apirilaren 15a)  
Administrazio Elektronikorako eta haren  
Gobernurako Eusko Jaurlaritzaren Plan  
Estrategikoaren barne dagoen proiektua





## Sarrera

**2005. urtetik, Eusko Jaurlaritza Kontratazio Publiko Elektronikoa abian jarri duen lehenengo administrazioa izan da, Espainia osoan.** Halaber, Espainian, kontratazio publiko elektronikoa arautzeko lehenengo erreferentzia da 2004ko abuztuaren 16ko Ogasun eta Administrazio Publikoa Sailaren 4673 zk. agindua, Ogasun eta Administrazio Publikoko sailburuarena, "Administrazio Publikoetan kontratuen legediak xedatutako prozedura **eta jarduera jakinen izapidetze telematikoari**" buruzkoa.

Ahalik eta segurtasun handiena emateko asmoz, Eusko Jaurlaritzak berme eta segurtasun handien ematen duen sistemagatik apustu egin du, eta Sinadura Elektroniko Aitortua izeneko ziurtagirien teknologia hautatu du. Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistema garatzeko hartu diren irtenbideek aspektu kritiko funtzional guztiak eta kontratazioaren segurtasuna bermatzen dute.

Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistema garatzeko, oinarritzat hartu dira Eusko Jaurlaritzako eAdministrazioaren arkitektura orokorraren aplikazioak, eAdministrazioa Administrazio eta Gobernu elektronikoaren Estrategia Planaren barnean bultzatu da. Arkitektura horrek erabateko segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen ditu, eta, ziurrenik, Europan kontratazio elektronikoko publikoaren arloan apartekoa ere bada.

Mota honetako edozein aldaketari atxikitako zailtasunez gain, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publiko Elektronikokoaren Ereduak kontratazio elektronikoko **integrala**, garatzen duela; izan ere, espedienteen prozedura osoa baliabide telematikoen bitartez egiten da, barne tramitazioa (litzazio iragarkiak eta beren dokumentazio osagarria interneten argitaratzea eta eskaintzak zabaltzea barne) nahiz kanpo tramitazioa (litzitzaileek eskaintzak aurkeztea, beren jakinarazpenak jasotzea edo kontratua sinatzea, adibidez).





**Segurtasun eta konfidentzialtasun maila erantsia bat ere bada: prozesu guztiak lizitatuzailearen ordenagailuan egiten dira.** Horrela, inork ezingo du inolaz ere ezagutu enpresa baten eskaintzaren edukia.

Kontuan izanda, batetik, espedienteak **ez** direla maila txikiko kontratuak (tramitazio laburtua dutenak), baizik eta kontratazio irekiak nahiz murriztuak edo negoziatuak direla, eta, bestetik, aipatutako espediente elektronikoetan lege aldetik eskaintzak ohiko moduan (formatu idatzian) aurkeztea ontzat eman behar dela, ikus dezakegu, bada, erronka handi baten aurrean gaudela.

Eusko Jaurlaritzako arduradunek uste dute kontratazio elektronikoari ekarpen garrantzitsuak egin dizkiotela, hainbat eremutan: antolaketa, prozedura eta eremu tekniko eta operatiboak. Aipamen berezia merezi dute 3.800 enpresa hornitzaileei zuzenduta egindako hedapen eta prestakuntza ahaleginak, funtzionarioei eskaintako prestakuntzak eta baita ere proiektuaren eremu guztietan emandako bide anitzeko euskarriak.

Gaur egun, kontratazio elektronikoa ez da derrigorrezkoa Espainian; hori dela eta, modu orokorrean ezar dadin, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jo du enpresa lizitatuzaileek kontratazio elektronikoa egitea, gaur egun Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden 3.800 enpresek, bereziki. Sustatutako jarduerak **Ezarpen Plan Zuzendari** baten barnean daude, eta honelako jarduera hauek aurreikusten dira:





## 2008 urteko bilakaera teknologikoaren laburpena

2005-2008 aldian bildutako esperientzia praktikoak agerian utzi du komenigarria dela zerbitzu berriak zabaltzea, jada lortu diren aurrerapenak osatze aldera. Arlo horretan, 2008an jarduera hauek osatu dira:

- **Lizitazio Elektronikoaren Sistemarako funtzio berriak garatzea.**
- **Kontratazio elektronikoko prozesuan onartutako sinadura elektronikoko aitortuaren ziurtagiri kopurua zabaltzea.**
- **Kontratazio Elektronikoaren Behin-behineko Gaiakuntzari dagozkion garapenak abiaraztea.**
- **Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko aplikazio telematikoen bigarren bertsioa kaleratzea, bertsio telematikoan.**
- **Kontratazio Espedienteen Kudeatzailearen eboluzio teknologikoa amaitzea.**
- **Irekiera gela martxan jartzea kontratazio elektronikoko espedienteen irekiera ekitaldietarako soilik erabiliko dena.**
- **Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemaren webgunea Sektore Publikoko Kontratuen Lege berrira egokitzeko lanei hasiera ematea.**
- **Operatiboki prest egotea lizitazio iragarkiak XML formatuan Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera (DOUE, Simap) automatikoki igortzeko.**
- **Euskadiko Kontratazio Publikoaren Erabileremua zehaztea.**
- **“Kontratzailearen profilaren” bertsio aurreratua zehaztea eta garatzea.**

# 2005-2008 urteen bitartean garatutako marketin eta hedapen jardueren aurkezpena

Kontratazio elektronikoaren onurak Eusko Jaurlaritzaren ikuspuntutik begi bistakoak izan daitezkeen arren, egia da Informazioaren Gizartea eta Administrazio Digitala astiro doazela ezartzen. Hortaz, **gero eta beharrezkoagoa da gizarte eta enpresa sentikortzen ahalegintzea, erabilera eta aplikazio berrien eskaera bultzatu eta tutoretza eta hedapen mekanismo argiak antolatze aldera.**

Pentsaera horren ildotik, kontratazio elektronikoari dagokionez, **Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jo du gaur egun Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana duten 3.800 enpresek sistema hartzea Horretarako, marketin eta hedapen ekintza hauek eraman ditu aurrera:**

## 01 Kontratazio Publiko Elektronikoaren Irudi Korporatiboa garatzea.

Planerako prestatu behar izan den material grafiko eta dokumental ugaria dela eta, Nortasun Korporatiboko eskuliburua sortu behar izan da.





## 02 Dokumentazio ugari garatzea, egun honako dokumentu hauek osatutakoa:

**Urteko memoriak**, laburtuak eta osatuak, 2006ko eta 2007ko ekitaldiei dagozkienak.

**Erabilerarako 4 eskuliburu**, Kontratazio Publiko Elektronikoren Sistema osatzen duten hainbat aplikazioei buruzkoak.

**21 katalogo**, kontratazio elektronikoren hainbat aspektuei buruzkoak.

**“Prest” aldizkariko 12 ale**, kontratazio elektronikoa buruz, euskaraz eta gaztelaniaz.

**Kontratazio Publiko Elektronikoko 2. eta 3. Mintegietako material osoa**; mintegiak Bilbon eta Donostian egin ziren, hurrenez hurren.

**Adostasun-maila neurtzeko galdetegia**, Kontratazio Publiko Elektronikoko erabiltzaileei egindakoa (2008ko uztaila).

## 03 Mailing postalak egitea

2006an, 4 mailing egin zitzaizkien Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana duten hornitzaile guztiei, eta 13 informazio katalogo bidali zitzaizkien.

## 04 Informazio fidelizazio jarduerak abiaraztea


Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren Idazkaritza Teknikoak aldizka argitaratzen duen “Prest” aldizkariaren 6 ale posta bidez bidaliz Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresei.





05 Interneten presentzia hedatu

06 Kontratazio Publiko Elektronikoa Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean erakustea.



07 Hedapen jardunaldiak egitea.



08 Kontratazio elektronikoen erabilera bultzatzeko "Alerta goiztiarra" eta gainerako mezuzak abiaraztea





## 2008. urtean egindako Hedapen Jardunaldiak

Jarduera berrien ondorio gisa, adierazle kuantitatibo hauek izan dira enpresen hedapen arloan:

Egindako informazio jardunaldiak: 27

Informazio jardunaldiak joan diren enpresak: 1.324

Informazio saioetan parte hartu duten pertsonak: 1.100

**2006-2008 aldiko jarduera ildo nagusienetako bat Hedapen Jardunaldiak aurrera eramatea izan da, gaur egun Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden 3.800 baino enpresa gehiagoei zuzenduta. "Misiolari" lan garrantzitsua izan da, enpresa gutxi ezagutzen baitituzte Kontratazio Publiko Elektronikoen irismena, abantailak eta erabilera baldintzak.**

Jarduera horiek aurrera eramaten dira SPRIko "Enpresa Digitala" programaren arduradunekin lankidetzan, Miñanoko (Araba), Zamudioko (Bizkaia) eta Miramongo (Gipuzkoa) Teknologia gunetan.

## Enpresa lizitatzailerentzako prestakuntza 2008an

Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana duten 3.800 enpresek kontratazio elektronikoa eskuratzeko bidea ez dute zertan bakarrik eta azken momentuan egin behar. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak prestakuntza elementu hauek antolatu ditu:

- **Prestakuntza presentziala:** Batez beste 3 orduko 5 ikastaro/hilabetean eta Euskal Herriko hiru hiriburuetan emango dira.
- **Online prestakuntza, internet bidez.**
- **Prestakuntza presentzialeko ikastaro osoa grabatzea eta bideoak eskaintzea "Youtube"-ren bitartez.**
- **Proba askeko lizitazioak enpresen eskura.**

2008an, lorpen nabarmenak izan dira prestakuntza arloan. Horrela, aipatu beharra dago:

- Prestakuntza presentzialeko **110 ikastaro** baino gehiago eman direla.
- Dagoeneko **1.019 pertsonak**, jaso dutela prestakuntza presentziala, **529 enpresen ordezkapenean**.
- 14.000 prestakuntza bideo baino gehiago beheratu direla "Youtube" -tik.
- 2005-2008 aldian **proba askeko 600 lizitazio**, baino gehiago sortu dira, lizitazio horietatik 60 lizitazio Lizitazio Elektronikoko Sistemaren 3.01 bertsio berria dela-eta eskainitako proba lizitazioak dira. Enpresek asko erabili dituzte proba askeak, bai bulegoetan, bai prestakuntza presentzialeko ikasgeletan. Proba espediente horiek funtsezkoak izan dira enpresek lizitazio elektronikoko aplikazioari dagokionez prestatu eta ezagutu dezaten. Horretarako, urrutiko laguntza funtzioak eskaini ziren (webcontrol), enpresa lizitatzailerentzako PCak prestatzeko.



## Ikastaro presentzialak administrazio teknikariei zuzenduta

2006-2008 aldian, Administrazio Publikoko Euskal Institutuarekin (IVAP) lankidetzan, Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren Idazkaritza Teknikoak kontratazio teknikariei zuzendutako prestakuntza ikastaroak ematen jarraitu du. Teknikari horiek, sail bakoitzean, Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistema bidez eskaintzen diren espedienteak kudeatzeko ardura izango dute..

Eusko Jaurlaritzaren administrazio kontratazioan jarduten duten pertsonak prestatzeko eskaintza berria bideratu da. Izan ere, kontratazio elektronikoko aplikazioak Sektore Publikoko Lege berrira egokitu behar izan dira, eta kontratazio eta lizitazio elektronikoko espedienteak kudeatzeko aplikazioen bertsio berriak garatu izan dira.

Gaur egun, **220 pertsona prestatu dira lizitazio elektronikoaren arloan eta 150 pertsona kontratazio espedienteen kudeatzailearen bertsio berrian.**

Gero eta gehiago dira Kontratazio Elektronikoko Idazkaritza Teknikoak eskaintako ikastaroetara bertaratzen direnak beste administrazio publikoetatik. Ikastaro horiek Administrazio Publikoko Euskal Institutuaren (IVAP) ziurtagiria dute.

Hala, 2008an, toki hauetako teknikarien prestakuntzan lankidetzan aritu dira:

- Arabako Foru Aldundiko Ogasun Saila.
- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).
- SPRI.



## Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzuaren **lana**

Informatika eta Telekomunikazioen Planean jasotako ildoekin koherentzian, 2006. urte hasieran Kontratazio Elektronikoari arreta emateko zentroa ezarri zen, jarduera hauetarako: erabiltzaileentzako arreta, laguntza tekniko, sarrera bideak eratzea, marketing eta hedatze prestazioak pertsonifikatzea, etab.

"Zuzenean" deritzon zerbitzuak Eusko Jaurlaritzaren Hiritarrentzako Arreta Zerbitzuak kontsultak egiteko aukera ematen du, telefono edo posta elektronikoz bidez.

Arreta Zentroaren zerbitzu ezagunenetako bat "urrutiko laguntza" (WebControl) da. Zerbitzu horiek Internet bidez egiten dira. Bestalde, laguntza teknikariek erabiltzaileak telefonoz ere artatzen dituzte. Horrela, Erabiltzaileak Laguntza Zentroaren laguntza proposamena onartzen badu, erabiltzaileak eta laguntza teknikariak Internet helbide batzuetara konektatzen dira eta helbide horien bidez enpresaren pantailan uneoro agertzen dena aldi berean ikus dezakete.

Hala, enpresaren erabiltzailea eta laguntza teknikariek lizitazio elektronikoaren operazioak burutzen dituzte eta denak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzen dute.

Honako hau da 2008ko Erabiltzaileentzako Laguntza Zentroaren jardueraren laburpena:

**Jorratutako  
Gorabeherak eta  
Kontsultak guztira: 752**  
Kontsultak: 300  
Gorabeherak: 452

**Jorratutako gorabeherak  
eta kontsultak  
nabarmen igo dira  
2008/2007 aldian; hona  
hemen xehatuta: + 34,5%**

Kontsulten ehunekoaren igoera: +121%  
Gorabeherak: +8%



Praktikan, gorabehera gehienak, Kontratisten Erregistro Ofizialaren telematika aplikazio berriaren 1 eta 2 bertsioarekin lotuta daude. Lehen, aplikazio horrek datuak kontsultatzeko jarduerak bakarrik ahalbidetzen zituzten, eta ezin ziren erregistroan izen emateko edo berritzeko eskaera digitalak egin.

Lizitazio Elektronikoaren aplikazioari buruzko intzidentzien igoera zentzudunagoa izan da (+ %7,8), kontratazio elektronikorako prestatzen ari diren enpresen kopurua igo dela adieraziz

2008ko uztaillean, asebetze-maila neurtzeko galdetegi bat egin zitzaion enpresa lizitatuzaileei. Hona hemen datu adierazgarrietako batzuk:

- Galdetegia erantzun duen % 70ak eskainitako prestakuntza ona edo oso ona dela esan du.
- % 67ak ez ditu proba lizitazioak egin.
- Inkestatuen %78ak lizitazio elektronikoko sistema ona edo oso ona dela erantzun du.
- Galdetegia erantzun dutenen % 87ak ez du aipatzen lizitazio elektronikoa egiterakoan arazorik izan duenik.
- Galdetegia erantzun duen erdiak baino gehiagok Kontratazio Elektronikoaren Erabiltzaileentzako Euskarri Zerbitzua erabili du eta erabili dutenen % 80ak zerbitzua ona edo oso ona dela erantzun du.





## Egoera operatiboa

### 2008an zehar eta gaur egungo egoera

2008an aurreikusitakoak baino askoz kontratazio elektronikoko espediente gutxiago eskaini ziren. Hain zuzen ere, kontratazio elektronikoko espedienteak prestatzeko eta abiarazteko 2008ko lan operatiboak neurri handi batean Sektore Publiko Kontratuen Lege Berria indarrean sartzearen eragina jasan du.


Gainera, 2008ko urte amaieran agintaldia bukatzearen ondorioz, hainbat gertaera izan dira eta horiek eragina izan dute kontratazio administratibo tradizionalan nahiz berrian (kontratazio elektronikoa).

Zailtasunak pixkanaka konpondu dira, 2008 amaieran Kontratazio Espedienteen Kudeatzailearen bertsio berria abiarazi zelako eta Lizitazio Elektronikoko Aplikazioaren 3.01 bertsio berria ekoizten hasi zelako. Bi sistema aplikagarrietan kontratazio teknikarien prestakuntza eguneratzeko egindako esfortzu handia dela-eta, jarduera operatiboari berriro atek zabaltzen zaizkio 2009ko bigarren hiruhilekoan.

**Bestalde, 2008. urtean lorpen operatibo garrantzitsuak izan dira:**

- Elektronikoak bakarrik diren kontratazio espedienteak orokortzea.
- Eusko Jaurlaritzak OJS eSender gisa onartua izana eta iragarkiak automatikoki bidali ahal izango ditu Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera.
- Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikoko 110 ikastaro baino gehiago eman ditu jadanik, enpresa lizitzaileei zuzenduta, eta, horren ondorioz, 2008. urte amaierarako 1.000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute kontratazio elektronikoko prestakuntza jardueretan.
- Eusko Jaurlaritzako 220 kontratazio teknikarik jaso dute kontratazio elektronikoa buruzko prestakuntza.
- Kontratazio Espedienteen Kudeatzailea sail guztietara zabalduta da, eta 150 teknikarik baino gehiagok ikasi dute erabiltzen.





## 2009 ekitaldirako bilakaera operatiboaren aurreiskupena

**2009. urtearen ahalegin berriak egingo dira sentsibilizazio, sustapen eta lankidetzaren inguruan, elektronikoki eskainiko diren espedienteak prestatzeko.**

2009. urterako jarduerak helburu hauek ditu:

- **Abiarazitako espedienteak: 75**
- **Elektronikoak bakarrik diren espedienteak: 20**
- **Kontratazio elektronikoen derrigortasuna.** Eusko Jaurlaritzak elektronikoki soilik eskainiko diren kontratazio motak orokortu nahi ditu, ez bakarrik modu elektronikoa garatzea aurreikusitako espediente moten bidez, baizik eta paper bidez ohiko moduan eskainitako ohiko espedienteen kontratazio elektronikoen derrigortasuna orokortzearen bitartez.
- **Jakinarazpen elektronikoen derrigortasuna.** Eusko Jaurlaritzak otsailaren 21eko 209/2003 Errege Dekretuaren babesean, zeinen arabera erregistro eta jakinarazpen telematikoak arautzen diren, etengabe erabili du jakinarazpen elektronikoa kontratazio elektronikoko prozeduretan. 2009an, jauzi kualitatibo handiagoa egingo da, jakinarazpen elektronikoa derrigortuko baita, espedientea kontratazio elektronikoa bidez eskainia izan nahiz eta ez izan.
- **Kontratazio elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, eta, Euskal Administrazio Publikoak, orokorrean lotutako erakunde publikoetara hedatzeko lanak bultzatzea.**

Europako Batasunak 2010. urterako helburu gisa ezarri du europar administrazio publiko osoaren kontratazioaren %50a prozedura elektronikoa bidez egin izan dadila, eta Eusko Jaurlaritzak helburu hori lehenbailehen lortu nahi du.





## Legeak eta Arauak garatzeko hasitako jarduerak

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publiko Elektronikoen lege-korpua duela gutxi eratu da, eta funtsean 2004ko abuztuaren 16ko 4673 zk. aginduan oinarritu da.

Kontratazio elektronikoen arautegi-lege eboluzioa etengabe bultzatzea komenigarria dela erakusten digute ezartzerakoan pilatutako esperientziak eta Eusko Jaurlaritzan, Estatuan nahiz Europa Batasunean legeak izandako garapenak.

Pentsamendu horren ildotik, 2008. urtean, Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren zirriborroa prestatzen aritu dira. Dekretu horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriak aurreikusitako prozedura jakinen izapidetze telematikoa arautzen da.

Hauek dira zirriborroaren nobedadeetako batzuk:

- Izapidetze telematikoa arautzea Kontratisten Erregistro Ofizialean.
- Gune instituzionaleko Kontratazioaren Erabileremua eta Kontratatzailearen Profila arautzea.
- Interesadunen unibertsoa zabaltzea, Kontratazio Elektronikorako Behin-behineko Gaikuntzaren bitartez.
- Kontratuen erregistroa, Kontratazio espedienteen kudeatzailea, Aurre iragarkiak eta Alerta goiztiarrak arautzea.
- Eskaintza elektronikoetan emandako dokumentu osagarriak arautzea.
- Akatsen tratamendua eta kontratazio elektronikoko sistemak erabiltze ezintasuna.
- Behin-behineko eta behin betiko bermeen tratamendua Kontratazio Elektronikoen testuinguruan.
- Lizitatzailerak guztiek jakinarazpen elektronikoa erabiltzea derrigortzea, elektronikoki lizitatu duten edo ez aintzat hartu gabe.
- Elektronikoki soilik eskainiko diren espedienteak abiaraztea.

# Beste administrazioekin lankidetzan kontratazio elektronikoa hedatzeko


Gobernu Kontseiluaren Akordioak Kontratazio Ereduaren Ezarpenerako Plan Zuzendaria zehazten duenez: "Foru eta Tokiko Administrazioarekin lankidetzan bultzatuko dela kontratazio elektronikoko publikoaren testuinguruan, eta, horretarako, lankidetzarako tresna egonkorak ezarriko dituztela nahikoa ordezkariak duten kontratazio elektronikoa ezartzea eskatzen duten foru eta tokiko administrazioekin".

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza lankidetzan arituko da, Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemarako eskuragarri dauden giza baliabide eta baliabide teknikoetan, nahi duten Foru Administrazio eta Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Administrazioek eskura dezaten, nahikoa ordezkariak duten ezarpenei laguntza emateko euskarri metodologikoak, prestakuntzakoak eta aplikagarriak emate aldera".

Eusko Jaurlaritzak 2005-2008 aldian lankidetzan mota hauek eskaini ditu:

- Ezagutza elkar-trukatzea.
- Hitzarmenak garatzea, Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemaren teknologia beste administrazio interesdunei igortzeko.
- Kontratazio elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorriari lotuta dauden erakunde publikoetara hedatzea.
- Lankidetzarako eskaintza orokorra, Kontratazio Publiko Elektronikoko Eredua Euskal Administrazio Publikoetara hedatzeko. Lehen aipatutako hitzarmena oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzak lankidetzan eskaini zien Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiei eta baita Udalerrien Euskal Federazioari (Eudel) ere, kontratazio publiko elektronikoko arlo hauei dagokionez:
  - Kontratazio publikoko ataria sortzea Euskadin, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean, interesa duten administrazio guztietara zabalik dagoena.
  - "Kontratazioaren profila" sortzea Euskadin, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean, interesa duten administrazio guztietara zabalik dagoena.
  - Kontratazio espedienteen kudeatzailearen (T-66) bertsio berria eskuragarri egotea, eta lantalde bat eratzea, bertsio horrek eboluziona dezan.
  - Euskadiko Kontratatzen Erregistro Ofizialaren inguruan lankidetzan aritzea.
  - Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko Sistema eskuratzea, 3 aukera izanda:
    - Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko Sistema erabiltzea, lizitazio pilotuak egiteko, ikasi ahal izateko.
    - Lizitazio elektronikoko produktua erabiltzeko lizentzia ematea, nahi den denboran erabiltzeko, inolako kosturik gabe.
    - Lizitazio elektronikoko produktuaren softwarea osatzen duten kode iturriak ematea.

Puntu honetan, 2008ko ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean, Kontratazio Publiko Elektronikoko arloan lankidetzarako hitzarmena sinatu dela, garrantzitsua da aipatzea. Hain zuzen ere, Xabier Agirre Arabako diputatu nagusiak eta Idoia Zenarruzabeitia Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak hitzarmen bat sinatu dute eta hitzarmen horri esker Arabako Foru Aldundiak Lizitazio Elektronikoko Sistema doan erabili ahal izango du; sistema horrek Arabako administrazioari aukera emango dio kontratazio publikoko fase guztiak elektronikoki izapidetu daitezkeen.





## 2004-2008 aldiko sariak eta aitortzenak

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduak, bere ibilbidean, sari hauek jaso ditu:

- Tecnimap-2004 saria, enpresentzako zerbitzu digital onenari, Administrazio Publikoko Ministerioaren eskutik.
- 2006ko Administrazio Elektronikoko Praktika onenari saria, Diario Expansión, T-Systems eta Recoletos argitaletxearen eskutik.
- "IDABC Programme studies on European eProcurement projects" en erreferentziako proiektuen zerrendan sartzea.
- IDABC programaren ikerketetan sartzea. ("State of the art report: case studies on European electronic public procurement projects". DFPA (Spain-Basque) izenarekin PETM-BCS aipatzen da (15. orrialdea), e-Procurement arloan erreferentziako proiektu gisa Europan.
- Espainiako Parlamentuaren Batzorde Legegilean aurkeztea. Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren arduradunari Sektorerik Publikoko Kontratuen Lege berria izapidetzen ari den batzordera aurkezteko gonbidapena egin zieten.
- "eAdministrazioaren Jardunbide Ona" aitortzena (ePractice.eu Good Practice label for 2007), Europako Batasunaren eskutik.
- "2008ko ekimen edo proiektu teknologiko onenari" saria, autonomia administrazioetako administrazio elektronikoen arloan, Informatika eta Telekomunikazioetako ingeniariak hedatzeko DINTEL fundazioaren eskutik.

# Nazioko eta nazioarteko ekitaldiak 2005-2008 aldian

Azkeneko hiru urteetan, Eusko Jaurlaritzak bere Kontratazio Publiko Elektronikokoaren Eredua aurkeztu du honako ekitaldi hauetan:

- “IANIS+” (the Innovative Actions Network for the Information Society) biltzarrean.
- Europar Batasuneko Kontratazio Elektronikokoaren Lantaldearen abiarazte Bileran.
- Borgoinako (Frantzia) Eskualde Kontseiluan aurkezpena.
- Amsterdamen egin zen III. Kontratazio Publikoko nazioarteko biltzarrean.
- OMC-PTP (Open Method of Coordination - Public technology procurement) Europako Proiektuaren osoko bilkura, berrikuntza sustatzeko kontratazio administratiboaren bidez.
  - Prestakuntzarako eta Ikerkuntzarako Nazio Batuen Institutuan (United Nations Institute for Training and Research, UNITAR) aurkeztea eta baita ere Tokiko Autoritateak Prestatzeko Nazioarteko Zentroan (CIFAL).
  - Prestakuntzarako eta Ikerkuntzarako Nazio Batuen Institutuak (United Nations Institute for Training and Research, UNITAR) antolatutako ikastaroan aurkezpena.
  - Murtziako Unibertsitateak antolatutako Kontratazio Administrazioaren Jardunaldietan aurkezpena.





Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio elektronikoko sistemari buruz posta bidez edozein kontsulta egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara:

Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco.  
Ogasun eta Herri Administrazio Saila  
Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza  
Donostia - San Sebastián, 1.  
01010 Vitoria-Gastéiz

Tel.: 945 01 86 75  
kontratazioa@ej-gv.es

**[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)**  
**[www.euskadi.net/contratacion](http://www.euskadi.net/contratacion)**

Eredu erraz,  
erabilgarri  
eta segurua

